

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

-Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Baliabide fisiko: Ordenagailu bat behar da proiektu guztia aurrera eramateko eta leku bat liburuak biltzen joateko.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Webgunea sortzen duen pertsona eta bere diseinua sortzen duena. Webgunea martxan jarrita, berritzen joaten den pertsona, arazoak konpontzen dituen eta sare sozialetan aritzen dena, proiektua ezaguna egiteko eta bezeroak erakartzeko.

Azkenik, liburuak garraiatzeaz arduratzen den pertsona, hau da, liburuak gordeta dauden lekutik Correosera eramaten dituenak.

Bestalde, gure proiektuarekin lan egin nahi duen GKEa. Haiek arduratuko dira lortzen den dirua hezkuntza behar duten pertsoneri bideratzeaz.

Finantza-baliabideak: Ordenagailua eta WiFia etxean daukaguna edo liburutegikoa erabiliko genuke, dirua suposatzen ez duen baliabidea. Ordaindu beharko liratekeen gauza bakarra Correosen lana izango zen, hau bigarren eskuko liburua erosten duen pertsonak ordainduko luke liburuen prezioen barruan (bidalketa gastuak).